BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4808

AGINDUA, 2014ko urriaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Errenteriako (Gipuzkoa) «Errenteria musikal» musika-eskola publikoari musika-espezialitateak gehitzeko baimena ematekoa dena.

Errenteriako «Errenteria musikal» musika-eskola publikoaren ordezkariak musika-espezialitateak gehitzeko egin duen baimen-eskaera aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: urriaren 27ko 289/1992 Dekretua (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak -musika-eskolak- sortzea eta horien jarduna arautzen duena; eta gai horretan aplikatu beharreko indarreko araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2014-2015 ikasturtetik aurrera «Txalaparta» musika-espezialitatea irakasteko baimena ematen zaio ondoren zehazten den ikastetxeari:

Kode-zenbakia: 20007023
Izen generikoa: Musika Eskola Publikoa
Izen espezifikoa: «Errenteria musikal»
Titularra: Errenteriako Udala
Helbidea: Alfonso XI kalea, z.g.
Udalerria: Errenteria
Lurralde historikoa: Gipuzkoa

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira:

● Mailak: 1.a., 2.a, 3.a eta 4.a.

● Adarrak:

– Kantua.

– Instrumentu sinfonikoak: oboea, tronpeta, klarinetea, tronboia, biolina, biola, kontrabaxua, saxofoia, txirula, tronpa, fagota, perkusioa, tuba, biolontxeloa eta bonbardinoa.

– Instrumentu polifonikoak: gitarra, akordeoia eta pianoa.

– Instrumentu eta dantza tradizionalak: txistua, trikitia, panderoa, dultzaina, euskal dantza tradizionala eta txalaparta.

– Zenbait joera: gitarra elektrikoa, pianoa eta baxu elektrikoa.

2. artikulua.– Indarrean dagoen araudia betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea irakasleen titulazio akademikoari dagokionez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 24a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.